

KONTROL MOZIOA

Bidebieta eta Herrerako aparkaleku beharrak direla-eta

Amaia Almirall Lopez de Luzuriaga EH BILDU udal taldeko zinegotziak, Udaltzaren Organo Araudiko 98. artikulua oinarri, mozio hau aurkezten du, Udaltzaren azter dadin. Mozioa 2017ko maiatzaren 15ean Gune Publikoen eta Obra eta Hiri Zerbitzuen Batzordean aztertutako interpelazioaren ondorioa da.

JUSTIFIKAZIOA

2016ko aurrekontuen eztabaidaren baitan talde honek eduki ekonomikorik gabeko zuzenketa bat aurkeztu zuen. Berau adostu ondoren, honela zioen Udaltzak onartu zuenak: *“Bidebieta eta Herrerako aparkaleku beharrak: adostea erakunde eskudunekin - batez ere, Gipuzkoako Foru Aldundia eta Pasaiako Udala- Herrera aldean aparkalekuak egoteko bermea, Pasaialde bere onera ekartzeko lanen barruan, gaur egun ibilgailuak aparkatzeko toki nahikorik ez egoteak eragiten duen arazoa konpontzeko”*.

Erabakia hartu zenetik hamasei hilabete egin ondoren, apirilean, gauzatzearen berririk ez zegoenez, alkate jaunari galdera egin genion, ea zein kudeaketa eginda zeuden mozioa betetzeari begira; alegia, ea zeintzuk ziren horien emaitzak eta zer beste aurreikuspen zegoen. Mugikortasuneko zinegotzi ordezkariak galdera horiek erantzun ordez, zonaldea hobetu dela esan zuen eta berritasun bakarra portuko plana zela zioen. Haatik, ez zuen azaldu Pasaiako Portu Agintaritzak Donostiako Udalari ezezkua eman ziola, txosten negatiboa duela urte erdikoa izan arren.

Gauzak horrela, maiatzean, alegazioak baztertu izan diren informazio hori gure kabuz eskuratu ondoren, gaiari zein irtenbide emango zaion itaundu genuen, epe edo plangintzen aurreikuspenak inoiz baino beharrezkoagoak izango direlakoan. Zinegotzi ordezkariak ez zuen inongo konpromisorik hartu nahi izan, Udal Gobernuaren programaren 41. orrian konpromiso zehatza iragarri arren: *“Mugikortasun pribatuari dagokionez, aparkatzeko zailtasunak dituzten auzoetan (Altzan, Herreran eta Bidebietan) aparkaleku berriak egiteko guneak bilatuko ditugu, partida ekonomikoek ahalbidetzen duten neurrian”*. Soilik 2015 eta 2016 ekitaldien exekuzioan izandako soberakina kontuan hartuta (gutxi gorabehera, 8 milioi eurokoa), ez dirudi egoera ekonomikoa oztopoa denik. Ondorioz, egitasmo honi noiz eta nola helduko dion zehazteko unean gaude, Udaltzaren erabakia hartu zuenetik 18 hilabete pasa direnez gero.

Horiek horrela, hauxe da gure **MOZIOA**:

1,- Udalbatzak eskatzen dio Udal Gobernuari, 2015eko abenduaren 22ko Udalbatzaren erabakiak agintzen duena betetzerakoan (“*adostea erakunde eskudunekin -batez ere, Gipuzkoako Foru Aldundia eta Pasaiako Udala- Herrera aldean aparkalekuak egoteko bermea, Pasaialde bere onera ekartzeko lanen barruan, gaur egun ibilgailuak aparkatzeko toki nahikorik ez egoteak eragiten duen arazoa konpontzeko*”), zehatz ditzala aztertu dituen aukerak, eta aukera horiek jaso dituzten emaitzak ezagutzera eman ditzala udal taldeen zein herritarren artean.

2,- Udalbatzak eskatzen dio Udal Gobernuari, 2015eko abenduaren 22ko Udalbatzaren erabakiak agintzen duena (“*adostea erakunde eskudunekin -batez ere, Gipuzkoako Foru Aldundia eta Pasaiako Udala- Herrera aldean aparkalekuak egoteko bermea, Pasaialde bere onera ekartzeko lanen barruan, gaur egun ibilgailuak aparkatzeko toki nahikorik ez egoteak eragiten duen arazoa konpontzeko*”) bere horretan betetzea ezina bada, zehatz dezala zein alternatiba bideratuko duen eta zein epetan, erabakiaren betekizunean.

Donostian, 2017ko ekainaren 23an

Amaia Almirall Lopez de Luzuriaga
EH Bildu udal taldeko zinegotzia